




# EUSKAL HERRIAK BEHAR DUENA INFORMAZIO OBJEKTIBOA ETA PLURALA DA



Honezkero adostu ez bada, aste hauetan adostekotan omen dago Eusko Jaurlaritzaren bere EITBko Zuzendari Nagusiarekin euskal herritarrek "hezteko" plan berria, edo birmoldatua. Legegintzaldiaren hasieratik bertatik konstituzioaren -espainiarra noski- baloreen aldeko doktrinamenduaren aldeko apustua egin du PSOEk, horretarako behar dituen tresna guztiak erabiliz, batez ere irakaskuntza eta komunikazioarenak.

Euskal jendartea heldua da, eta baieztapen hau ez da hainbat foro politikoetan erabiltzen den demagogia. Euskaldunok doktrinamendu edo «burmuin garbiketa» hau aspalditxo nabaritu dugu, eta hala islatzen da EITBko audientzia datu gero eta kaskarragoetan. Ikusteko dago zer egingo duen EITBk hain zuzen ere doktrinatu behar duen audientzia hori berreskuratzeko, ala audientzia horiek hain zuzen ere euren parrokiak bilatu behar dituzte? Iparralde eta Nafarroako ikus-entzuleriak zein paper jokatzeko du, audientzia datu hutsa ala estrategiaren jo puntua ere?

Iritzi egokia sortzeko informazioa plurala eta objektiboa izatea da behar duguna, inork «zuzendu», «hezi» edo «egokitu» gabe. Azpimarragarria da azken

aldiotan Euskal Herrian orokorrean eta Ezker Abertzalean zehazki ematen ari den eztabaida prozesua, nazioartetik duen jarraipen garrantzitsua kontutan edukita ere. Lehen mailako

egiten da, hau elkarrizketatu gabe eta informazioa kontrastatu gabe ere. Beste aldetik bai, legez kanpokoak izan daitezkeen eta inolako etikarik ez dituzten filtrazioak erabiltzeko kezkarik ez dago. Suriok hitza bete du EITB ez dela Ezker Abertzalearen

izenean diote.

Aurreko ohar batean salatzen genuen bezala, eguzkia atzamarrarekin estali nahian, normaltasun sozial eta politiko artifizial bat eskaintzen digute EITBko albistegiek. Gehiengo sindikala baztertua dago ia, LAB zeresanik ez; Euskal Herriarentzat garrantzitsuenak diren gaiak albistegien erdi-amaiera alderako uzten dira, informatiboak azaleko -edota gobernuen propagandarako- gaiekin ireki eta gero.

Aurreko gobernuarekin ematen zen arazoa larritu egin da nabarmen, «aparthEITB» eta Ajuria Eneako estrategia gaituz. Orain bazterkeria politikoaz mantendutako parlamentuak eta sasi-gobernuak bazterkeria mediatikoa behar dute biziraupen estrategia elikatzen. Datozen garaietan bizi dugun egoera antidemokratikoan adostu daitezkeen inboluzioei -Plan Estrategikoa, Kontseilu Editoriala, Estilo Liburua, Erredakzio Estatutua...- adi adi jarraituko diegu LABetik.



albiste honetaz asko hitz egiten ari da, hainbat ikuspegi eskaintzen da, baina oraindik ere ez zaio protagonista bati ere hitza eman, kazetaritzaren printzipioetako bat urratuz. Hau da, subjektuaz barra-barra hitz

bozgorailu mediatikoa izango, baina egoki informatzea ez da bozgorailu bat jartzea. Kontrakoa egitea bai, ideiak isilaraztea da, eta esaten duenaren kontra, praktikan euskal komunikabideak itxi zituztenekin bat etorrira, eta nolabaiteko pluraltasunaren



Euskal Telebista eta Euskadi Irratiko LAB  
2010eko Maiatzaren 5ean